

25 URTEKO LAN OPAROA: EUSKARARAKO HIZTEGIA (1986) - EUSKAL HIZTEGIA (2011)

I. Abiapuntua

“BOSTAK BAT” taldea sortu eta lanean hasi ginenean, gure asmo nagusia euskara gizarte modernoko beharrianetara egokitzea izan zen. Taldekide gehienak euskararen irakaskuntza alorrean jardunak izanik, euskara hutsezko hiztegien premia larria ikusten genuen.

Sinonimoen hiztegia Durangoko azokan aurkeztu genuenean (1983) elkarrizketa luze bat izan genuen Euskadi Irratiko esatariekin. Elkarrizketa egin zigunak, euskara hutsezko sinonimoen hiztegia argitaratzeko izandako gure ausardia ikusiz, erronka berria jarri zigun aurrez aurre eta definiziozko hiztegi bat egitera animatu gintuen.

Dirua taldekideok aurreratuta, inolako laguntzarik gabe kaleratutako gure *Sinonimoen hiztegiak* izandako arrakasta ikusirik (Durangoko azokan 400 aletik gora saldu ziren eta urtebete baino lehenago argitalpena agortu), definiziozko hiztegia egi-tea erabaki ondoren, lanari ekin genion.

II. Definiziozko lehen hiztegia: *Euskararako Hiztegia*

Euskaraz genuen halako hiztegi bakarra *Batasunaren Kuxa* zen. Hiztegi honi, baina, oso mugatu iritzi genion, bai sa-

rreretan (3.000 inguru) baita hitzei ematen zitzaaien tratamenduan ere (gehienetan definizioak baino gehiago sinonimoak eskaintzen zituen). Hiztegi oso bat baino gehiago euskara baitua bultzatzeko asmoz eginiko hurbilketa edo zen. Mugatua izan arren, baliabide oso baliagarria zen euskararen aberastasunak jasotzeko eta euskalkien eremutik haratagorako ateak zabaltzeko.

Definiziozko hiztegi bat egiteak, baina, bi ardatz nagusi zituen. Batetik, hitzik erabilienak aukeratu behar ziren, benetan jendearentzat lagungarri egiteko. Bestetik, alde zurretik egokiro erabaki behar zen, baita, zer-nolako definizioak eskaini ere.

Horrela, zenbait bilera eta gogoeta luze burutu ondoren, gerora gure definiziozko hiztegietan jarraitu izan dugun bidearen nondik norakoak definitu genituen. Ezinbestekoak ziren aipaturiko bi ardatz horiek argitzeaz gainera, euskararen aberastasunak ere jaso zitezen, sinonimoak eranstea ere komenigarritzat jo genuen. Hurrengo era honetan konpondu genuen arazoa.

II.1. Hitzik egokienak aukeratzea: Hiru fasetan:

1. fasea: (honako iturri hauek erabili genituen)

- AEK-k argitaraturiko hitz-zerrenda (2.000 hitz).
- HABE-k argitaratutako hitz-zerrenda (3.000 hitz).
- HITZ EGIN-en erabilitako hitz-zerrenda (5.500 hitz).
- ZORTZI URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIA, Euskaltzaindiak oniritzia (7.000 hitz).
- ESKOLAURREKO eta LEHEN ZIKLOKO EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZAN datozen hitzak (“D”, “B” eredueta-koak).
- ERDIKO ZIKLOKO EUSKARAREN PROGRAMAKUNTZAN datozen hitzak (“D”, “B” eredueta-koak).

-*DICCIONARIO BASICO ILUSTRADO* (4.000 hitz) Xabier Mendigurenek 3 hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa) prestatua.

-LEHEN PRESTAERA (HIZTEGI ARAUEMAILEA) Ibon Sarasolak prestatua (4.000 hitz)

-SINONIMOEN HIZTEGIA (Aukeraketa bidez 3.500 hitz inguru hartuta).

2. fasea: (honako iturriak erabili genituen)

-UZEI-k ikastoletako 225 liburutan eginiko hustuketatik ateratako zerrenda (maiztasunaren irizpidea erabiliz 7 aldiz, hots, 7 testu ezberdinetan gutxienez, agertzen zirenei egin genien lekua).

-*HIZTEGIA-2000* hiztegitik hautatuak (taldekideen iritziz gaurko bizitzarako beharrezkoak direnak).

-ZAMARRIPAK eta MANTEROLAK jasotako Bizkaiko hitzen zerrendak.



-AZKUEREN HIZTEGITIK eginiko hautaketa (euskalki guztietako orokorrak nahiz Iparraldean eta Bizkaian erabilera zabalekotzat jotzen dituenak).

-BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO ELIZ LIBURUETAKO lexiko bateratua (2.700 hitz).

-IPARRALDEKO ELIZ LIBURUETAKO lexiko berezia (700 bat hitz berezi).

3. fasea: (honako iturriak erabili genituen)

-Xabier Mendigurenek, gomendatutako mailegu-zerrenda zabaletik hautatutako hitz-zerrenda.

-UZEI-k argitaratutako zenbait hiztegitatik (Administrazio, Finantza, Legegintza, ...) lorturiko zerrendak.

-Kirol saileko oinarritzko zerrenda orokor hautatua.

-Aurreko zerrendan ageri ez arren, definitzeko erabili behar izandako hitzak.

II.2. Definizio-motak aukeratzeko iturriak

-Ibon Sarasolaren *Hauta-Lanetarako Euskal Hiztegia*: A eta B letrei zegokiena

-UZEIren Politika eta Hizkuntzalaritza hiztegitatik zenbait hitz definitu.

-*Batasunaren Kutxa*. Honetan ere lagungarri izan genituen zenbait definizio ageri ziren.

-Gaztelaniazkoak ereduak: Micro Robert, Oxford, Larousse txikia, Santillana, Maria Moliner, Diccionario básico de la Real Academia, Casares

II.3. Sinonimoak eranstea

Definizioak eta adibideak eskaintzeaz gainera, euskalkietatik baturako bidea errazteko asmoz, sinonimorik erabilienak propo-

satzea ere erabaki genuen. Horrela hiztegiaren erabiltzaileari lexikoa ugaritzeko bidea ere eskaintzen genien. Geroago, lana burutu izan dugun adinean, hainbatean ugaritu izan dira eskainitako sinonimoak, bide batez antonimoei ere lekua eginez.

Hiru urteko lan luze eta neketsuaren ondoren, pozik eskaini ahal izan genien euskal munduan lanean ari zirenei euskara hutsean definiziozko *Euskararako Hiztegia*. Jendeak hasieratik agertu zigun begirunea eta babesa hiztegia erosiz; baita hartutako bidetik jarraitzeko laguntza handia eman ere.

III. 25 urtetako lan oparoa

Euskararako Hiztegia 1986an argitaratu ondoren, hainbat urtetan jarraitu genuen definiziozko hiztegi hori osotzen eta txukuntzen. Baita ere, sinonimoen hiztegiak aberasten, hurrengo datu hauetan ikusiko duzue:

1. Definiziozko euskal hiztegiak:

-*EUSKARAKO HIZTEGIA* (**Adorez 2:** 1986): 13.000 sarrera inguru

-*EUSKARAKO HIZTEGIA. OINARRIZKOA* (**Adorez 4:** 1990): 15.360 sarrera.

-*ESKOLA HIZTEGIA. IRUDIDUNA* (**Adorez 5:** 1991): 16.427 sarrera


-*EUROPA HIZTEGIA. ESKOLA BERRIRAKOA* (**Adorez 6:** 1993): 26.382 sarrera

-*ESKOLA HIZTEGIA. IRUDIDUNA. BERRIZTATUA* (**Adorez 5-1:** 2005): 16.500 sarrera

-*EUSKAL HIZTEGIA (DEFINIZIOZKO HIZTEGIA):* (**Adorez 13:** 2011): 12.798 sarrera

2. Sinonimoen hiztegiak:

-*SINONIMOEN HIZTEGIA* (**Adorez 1:** 1983): 8.964 sarrera



EUSKAL HIZTEGIA

EUSKALTZAINDIAREN ARABERA
Bizitza modernoko hitzik erabilienak

Orrialdeak

796

Sarrerak

12.798

Definizioak

18.505

Sinonimodunak: **10.486**

Antonimodunak: **3.344**

Adierak

13.520

Esapideak

1.142

Deklinabidea eta aditzak

** Oinarri-oinarrizko hitzak: **1.128**

* Beharrizan handiko hitzak: **1.728**



adorez
HIZTEGIAK

ISBN 978-84-614-8746-2



9 788461 487462

-*SINONIMOEN HIZTEGIA ANTONIMODUNA* (**Adorez 3:** 1988): 19.783 sarrera.

-*SINONIMOEN HIZTEGIA ANTONIMODUNA* (**Adorez 8:** 1999): 36.705 sarrera

3. *Hiztegi elebidunak: (euskara-gaztelania / gaztelania-euskara)*

Une batean, merkatuan jendearen esku zebilen 3000 *HIZTEGIAK* berriztaketa sakon bat behar zuela ikusirik hiztegi elebidunak prestatzen hasi ginen. Horrela, lan luze eta neke-tsua ondoen hurrengo hauek atera ditugu. Abiapuntutzat, oinarri finkoa izateko, *Europa Hiztegian* (26.382 sarrera) eskainitako sarrerak hartu genituen.

-*DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA*. (**ADOREZ 7:** 1992)

-*DICCIONARIO ESCOLAR 3000 ESKOLA HIZTEGIA*. (**ADOREZ 9:** 2001)

-*DICCIONARIO 3000 HIZTEGIA. EGUNERATUA ETA OSOTUA* (**ADOREZ 7-1:** 2002)

-*ADOREZ HIZTEGIAK. HANDIA*. (**ADOREZ 11:** 2009)

-*ADOREZ HIZTEGIAK. MOTXILAKO HIZTEGIA*. (**ADOREZ 12:** 2010)

IV. EUSKAL HIZTEGIA: Bizitza modernoko hitzik erabilienak

Orain dela zazpi urte euskal hitzen maiztasunari buruzko ikerlan sakona egin genuen. Ikerlan horretan lortutako emaitzak aplikatuta argitaratu genuen hain arrakasta handia izan duen eta oraindik duen definiziozko *ESKOLA HIZTEGIA* (**Adorez 5**). Ikerketa horren aplikazioa izan da *MOTXILAKO HIZTEGIA* ere.

Horrela, iaz jendearen esku jarri ondoren, oso erabilgarri den *Motxilako Hiztegia*, beste urrats bat eman gura izan dugu, hain zuzen ere, *MOTXILAKO HIZTEGIA* horretan bildutako euskara-gaztelania aldeko sarrera guztiak euskaraz definituta eskaintzea.

Kaleratu berri dugun *Euskal Hiztegia* deitu dugun argitalpen honen bidez, bestalde, *Euskararako Hiztegia* definiziozko lehen euskal hiztegi osoaren 25. urtea gogoratu nahi izan dugu. Hasiera batean, gure asmoa *MOTXILAKO HIZTEGIAK* duen tainainako hiztegia egitea zen. Baina, letra handiagoa erabiliz ateratzea gomendatu digute, eta hala egin dugu. Egia esan, gomendio oso ona izan dugu.

Guztira 12.798 sarrera dituen hiztegi honetan, *ESKOLA HIZTEGIA* deituan egin genuen bezala, definizioez (18.505) gain, hainbat adibide (13.520) eta esapide (1.142) bildu ditugu. Eus-



kararen hitzik erabilienak jarri ditugu euskaraz bizi nahi duen edonoren esku. Sinonimoak (10.486) eta antonimoak (3.344) ere erantsi dira euskara aberasteko bidea eskaintzeko asmoz.

Horrenbestez, ardura handiz eta gogo biziz labean egositako hiztegi aberatsa dugu. Behar bada, oinarritzko hiztegi bati dagozkionak baino sarrera gehixeago dituena. Hori dela eta erantsi diogu *EUSKAL HIZTEGLA* izenari '*Bizitza Modernorako hitzik erabilienak*' esaldia. Eguneroko bizitzako beharritanean erantzutera dator, bada. Era errazean erantzutera, gainera.

V. Oinarri-oinarritzko hitzak eta beharritan handikoak

Gorago aipatu dugun gure ikerketaren emaitzez baliatu nahi dutenei bestelako informazio-iturri eder bat ere eskaintzen diegu. Zeintzuk diren euskaraz ezinbestean jakin beharreko hitzak eta zeintzuk oso beharrezkoak ere aditzera ematen dugu. Ezinbestean jakin behar direnei bi izartxo **[**]** erantsi dizkiegu alboan. Oso beharrezkoak direnei **[*]** izartxo bat.

Oro har, euskalkien eragina kontuan hartuta (ezinbestekoak dira zenbait kasutan: aitona/amona/aitajaun...) 1.128 hitz inguru ditugu euskaraz gutxieneko maila lortzeko jakin beharrezkotzat jotzen direnak, hau da, izar bikoak **[**]**. Oso beharrezkoak, hau da, izar batekoak **[*]** ordea, 1.728 inguru. Honetan ez dugu estuegi jokatu nahi izan egokiago baita gehixeago jakitea, ezinean geratzea baino.

Bi irispidetako erabili genituen hitzak aukeratzerakoan. Batetik, badira mundu guztian beharrezkotzat jotzen diren kontzeptuak. Hala gertatzen da landare, animalia eta zenbait tresna eta bestelako zenbait kasutan. Eguneroko bizitzan oso erabiliak izan ez arren, beharrezkoa dira bizitza modernoan bizi ahal izateko. Beste kontu garrantzitsua da zeintzuk diren eguneroko bizitzan gehien erabiltzen ditugun hitzak zehaztea. Aztertzen hasi bezain laster ez direla hainbeste konturatzen gara. Baina

horiek zeintzuk diren jakitea garrantzi handikoa da, hizkuntza harremanetarako tresna delako.

Beraz, **onarpenaren maiztasuna**, hots, hizkuntza guztietan ezinbestekotzat jotzen diren kontzeptuei (azkonar, otso, arte, pago, miru, aizkora, otzara...) ematen zaizkien erantzunak eta **erabileraren maiztasuna**, hots, eguneroko bizitzan ezinbestekoak [ate, etxe, ama, aita, beso, zapata, bide, mendi...] diren hitzak uztartzeko, zerrenda bateratu bat egin genuen, hurrengo iturri ugari hauek konbinatuz eta multzoka laukietan bateratuz:

- 1. Hiztegi elebakarrak:** *Eskola Hiztegia/Europa Hiztegia* (Bostak bat taldearena); *Lehen hiztegia* (Eskoriatzakoa/Vox); *Lehen hiztegia* (Harluxet); *Ikaslearen hiztegia* (Elhuyar); *Hiztegia osotzen* (anonimoa/Gizpuzkoakoa); *Euskal Hiztegia* (Ibon Sarasola); *Hiztegia -euskara/euskara-* (Lur argitaletxea).
- 2. Hiztegi elebidunak:** *3000 eskola hiztegia* (Bostak bat); *Diccionario escolar* (Elhuyar); *Oinarrizko hiztegia/diccionario básico* (Ibon Sarasola); *Lur Hiztegia* (txikia); *Labayru hiztegia*; *Euskara-Nederlandera* (M.H.Jansen: B6); *Euskara-errusiera* (Elhuyar).
- 3. Oinarrizko zerrendak:** *Euskara-ikasleen oinarrizko hiztegia* (HABE: 700/2.000/3.500 hitz); *Atalase maila* (4.000 hitz); *Oinarrizko zerrenda*: (E.Jaur. 700/2.560 hitz); *A/B/C ereduetao hasiera/erdiko zikloetako lexikoa* (3.600 hitz.); *Euskararen oinarrizko zerrenda* (HABE: 2.000 hitz); *Hitz egin metodoa* (3.900 hitz); *Zortzi urte arteko hiztegia*: (1.800 hitz); *Bizkaierako hitzik erabiliene zerrenda* (2.500 hitz); *Haurtzaindegirako zerrenda*: (2.700 hitz); *AEK-ren oinarrizko zerrenda* (2.200 hitz); *nire lehen mila hitzak* (1.000 hitz: lau hizkuntzatan).
- 4. Euskarako metodoak:** *Euskara hire lagun*: (1.050 hitz); *Euskalduntzen* (1.320 hitz); *Bakarka* (1.680 hitz); *Ikus*

eta ari (1.800 hitz); *Euskara mailaka*; *Deustuko unibertsitateko metodoa*; *ICE-ko hiztegi irudiduna*; *Nozio espe-zifikoak* (3.500); *Ikas txip* (800 hitz).

5. Inguruko hizkuntzetako erreferentziazko lanak: Espainiako ministerioaren 1. ziklorako zerrenda (5.050 hitz) -*“El cofre de palabras”* (3.000 hitz); Espainiako ministerioak: 2. ziklorako zerrenda: (4.300 hitz); Larousse: *mini debutants* (5.400 hitz); *Mes 10.000 mots en coulers*; *Vocabulario básico inglés* (1.000/4000 hitz); *Oxford pocket* (ikasleentzat) (8.500 hitz); *Diccionario Básico ilustrado* (euskara/gaztelania/ingeleza: 3.400 hitz (EGE). Bidegain jaunak Frantziako ministerioarentzat egindako oinarritzko zerrenda.

6. Zenbait ikerketa bidezko zerrendak: *Elizako testueta-ko lexiko bateratua* (4.600 hitz); *Lino Akesoloren lexikoa* (5.500 hitz); Azkue hiztegiko *hitz komunak* (7.000 hitz); *Haur/gazteen sei hiztegitako irudietako hitzak* (4.500 hitz); *Bizkaiko lau herritako lexikoa* (3.600 hitz).

Iturri guzti horietako lexikoa erkatu eta onarpenik zabalena duten hitzak aukeratu dira.

Beraz, baliabide eta lanabes aparta izango du euskara sakondu eta aberastu nahi duen edonork, tratamendu didaktiko egokiaz prestatutako hiztegia baita.

Gaur egungo euskararen egoera kontuan izanik, euskara batuari lehentasuna eman diogun arren, herriko hizkeraren zenbait berezitasun ere jaso ditugu. Horrela, euskalkien eremuetako hainbat hitz jaso dira, guztiak bilduz eta ikasiz osotzen baitugu euskara batu estandarra.

Hori dela eta, bereizi egiten dira Euskaltzaindiak baturako onartutako hitzak. Halako sarrerak **kurtsibaz edo hitz etza-nez** eskaintzen dira. Gainerako sarrerak, definitzeko nahitaez erabili behar izan direnak edota guk geuk egokitzen jo ditugu-

nak dira. Letra molde horiek kontuan izanik argi geratzen dira baturako onartutakoak. Horrela jokatu izan dugu gainerako gure hiztegietan ere.

VI. Euskal irakasleentzat ezinbesteko baliabidea.

Zer esanik ez, honelako lan bat burutzeko lanari ekiten zaionean, berehala etortzen zaizkigu burura erabiltzaileak. Gorago aipatu dut, gure asmoa *Motxilako Hiztegia* deritzanean euskarako aldean agertzen diren sarrerei euskarako definizioak ematera datorrela.

Egin-eginean euskaraz beharrezkoenak diren hitzak eta bildu eta Euskaltzaindiaren azken urte hauetako arauak zehatz beteta eskaini ondoren, beharrezkoa ikusi genuen euskaraz bi-zi nahi duten guztiei hitz horien tratamendua euskaraz eskaintzea.

Beraz helburu nagusia euskara ikasten nahiz sakontzen dihardutenei horretarako tresna egoki bat eskaintzea izan da. Asko dira, zalantzaz beterik noraezean ibili ohi diren irakasle eta ikasleak. Guk horiei guztiei esku-tresna eder hau eskaini izan diegu. Bertan ortografiatzko bide zuzenak jasotzeaz gainera, hitzen esanahiaz eta erabileraz egokiro jabetzeko aukera paregabea ere eskaintzen zaie.

Nire ustez euskara-maila bat lortu duten ikasle guztiek eta euskal irakasle guztiek beharko lukete honelako hiztegi egokitu eta eguneratu bat euskara ikasten jarraitzeko nahiz euskara egokiro irakasteko.

Hiztegi honetan jasotzen diren hitzak dagoeneko baturako onartuak izan direnez, hiztegi zehatz eta argi bat izango du euskara batuaz jabetu nahi duen edonork.

Bizkaieraren eremukoei, bizkaiera erraz eta egokiro ikasteko eta erabiltzeko eta euskara batuaz jabetzeko aditzaren laburpen berezi bat ere eskaintze zaie.

Eskerrak eman nahi dizkiet **ekainaren 1ean, arratsalde 7etan**, Bilboko Euskaltzaindiko Egoitzako aretoan (Plaza Berria, 15) egin genuen aurkezpenera etorri zineten guztioi nahiz ezin etorria adierazi zenigutenoi. Benetan zirrara handia egin zigun ehun pertsona inguru bertaratu eta aretoa gainezka ikus-teak.

Patxi Uribarren Leturiaga

EZAUGARRIRIK NAGUSIENAK

Euskara batuko hitzak letra etzanez.	ababor, abadia, abadesa, abagune...
“h.”: ondokoa hobetsi da	plantxa: 1 (h. xafla). 2 (h. lisaburdina); portzentaje: (h. ehuneko)
“e.”: ondokoa erabili behar da.	abarrots: e. barrabots; abaretxe: e. abade(-)etxe; abots: e. abots
“ikus”: ondokoa gomendatzen da.	agor: 3 ikus lehor; abuldura: 2 ikus abulezia; aldakuntza: ikus aldaketa; landatu: 3 ikus birlandatu...
“(-)”: marraz lotuta nahiz banatuta.	abade(-)etxe: abade-etxe / abade etxe
(**): jakin beharreko hitza.	aberats:**; adin:**; adiskide:**; aita:**; aitaita:**; afari:**...
(*): erabilera handiko hitza.	abere:*; aberri:*; abertzale:*; abeslari:*; abendu:*; abizen:*
Gramatika alorreko laburdurak	<i>iz. (izena), izond. (izenondoa), izlag. (izenlaguna), ad. (aditza), adond. (aditzondoa), adlag. (adizlaguna); esap. (esapidea); interj. (interjekzioa); konp. (konposatuak); h. e. (hitz elkarketa); konj. (konjuntzioa); Haur. (haur-hizkera); Irud. (Irudizkoa); Lag. (lagunartekoa)</i>

EUSKAL HIZTEGIA

EUSKALTZAINDIAREN ARABERA

Bizitzako hitzik erabilienak

Orrialdeak: 800

Sarrerak: 12.796

Definizioak: 18.254

Adierak: 18.494

- Sinonimodunak: 10.486

- Antonimodunak: 3.344

Adibideak: 13.494

Esapideak: 1.242

Deklinabidea eta aditzak

**Oinarri-oinarrizko hitzak: 1.128

* Beharrian handiko hitzak: 1.728

Jabea: BOSTAK BAT Kultur Elkarte

Aukeratzaile-prestatzaileak:

Patxi Uribarren Leturiaga (Euskaltzain osoa)

Luis Baraiazarra Txertudi (Ohorezko euskaltzaina)

Juan Luis Goikoetxea Arrieta (Euskaltzain urgazlea)

Ricardo Badiola Uriarte (Euskaltzain urgazlea)

Txomin Solabarrieta Etxaburu (Lizentziatua, itzultzailea)

Zuzentzaile lankideak:

Anizeto Ajuriagogeaskoa: Linguista eta irakaslea

Edurne Alegria: Linguista eta itzultzailea

Kaxildo Alkorta: Lizentziatua eta itzultzailea

Aritz Burgaña: Informatikako ikaslea

Mikel Garmendia: Lizentziatua eta irakaslea

Atotz Goikoetxea: Linguista eta itzultzailea

Martin Orbe: Linguista eta idazlea

Manu Ormazabal: Linguista eta itzultzailea

Jon Urruxulegi: Itzultzailea eta idazlea